Bestelako Xedapenak

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

2085

EBAZPENA, 2011ko martxoaren 14koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariarena, zeinen bidez Alboan fundazioa kreditatzen baita Garapena Sustatzeko Lankidetza Fondoaren kargurako programetarako laguntzak lortzeko. Adierazitako laguntzak apirilaren 3ko 57/2007 Dekretuak arautzen ditu.

Adierazitako dekretuaren 10. artikuluak ezartzen duenez, programetarako diru-laguntza lortzeko nahitaezkoa da 12., 13., 14., 15., eta 16.1 artikuluetan ezarritako baldintzak eta ahalmenak kreditatzeko aldeko eta indarreko ebazpena ematea. Kreditatzeko formularioa dekretu arautzailearen eranskinean dago.

Halaber, 11. artikuluak dioenez, Garapen Lankidetzarako zuzendariak ebatziko du kreditatze-eskaera hori, eta 36 hilabeteko indarraldia izango du, argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

2010ko abenduaren 28an, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziara bidalitako idazki baten bitartez, Garapena Sustatzeko Lankidetza Fondoaren kargurako programetarako laguntzak lortzeko kreditatze-eskaera egin zuen Alboan fundazioak.

Horregatik, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren (GLSF) kargurako programetarako laguntzak lortzeko Alboan fundazioa kreditatzea 36 hilabeteko indarraldiarekin, ebazpen hau EHAAn argitaratzen denetik hasita. Denbora-tarte horretan, Alboan fundazioak aukera izango du GLSFren kargurako programetarako laguntzak lortzeko deialdietara zuzenean aurkezteko, deialdi bakoitzean kreditatzeko premiarik izan gabe.

Bigarrena.– Kreditatze-indarraldian zehar, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak aukera izango du egokitzat jotzen dituen eguneratzeak eta/edo argibideak eskatzeko Alboan fundazioari, erakundearen administrazio-betebeharrak eta ahalmenak betetzeari dagokionez. Ikusten bada erakundeak ez duela betetzen eskatutako baldintza eta ahalmen horietakoren bat, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak ofizioz ekin ahal izango dio kreditatze hori baliogabetzeko espedienteari.

Otras Disposiciones

AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

2085

RESOLUCIÓN de 14 de marzo de 2011, de la Directora de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, por la que se acredita a la Fundación Alboan para concurrir a las ayudas a programas con cargo al Fondo de Cooperación al Desarrollo, reguladas por el Decreto 57/2007, de 3 de abril.

El artículo 10 del citado Decreto establece que, para tener acceso a la subvención de programas, es necesaria una resolución favorable y vigente de acreditación de los requisitos y capacidades establecidas en los artículos 12, 13, 14, 15 y 16.1. El formulario de acreditación consta en el anexo del Decreto regulador.

Asimismo el artículo 11 del mismo Decreto establece que será el/la Director/a de Cooperación al Desarrollo quien resuelva dicha solicitud de acreditación, teniendo una vigencia temporal de 36 meses a partir de su publicación.

La Fundación Alboan, mediante escrito dirigido a esta Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo con fecha 28 de diciembre de 2010, formuló una solicitud de acreditación para concurrir a las ayudas a programas con cargo al Fondo de Cooperación al Desarrollo.

En vista de lo cual,

RESUELVO:

Primero.– Acreditar a la Fundación Alboan para concurrir a las ayudas a programas con cargo al Focad por un periodo de vigencia de 36 meses a partir de la publicación en el BOPV de la presente resolución. Durante dicho período de tiempo, la Fundación Alboan podrá optar directamente a las convocatorias de ayudas a programas con cargo al Focad, sin necesidad de acreditarse en cada una de ellas.

Segundo.– La Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo podrá pedir durante el periodo de vigencia de la acreditación las actualizaciones y/o aclaraciones que estime oportunas sobre el cumplimiento de los requisitos administrativos y capacidades de la Fundación Alboan. Si se advirtiera que ésta dejara de cumplir alguno de dichos requisitos y capacidades exigidas, la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo podrá iniciar de oficio un expediente destinado a revocar dicha acreditación.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko martxoaren 14a.

Garapenerako Lankidetzaren
Euskal Agentziako zuzendaria,
MARTA ARES GODOY.

Tercero.– Que contra la presente Resolución, se podrá interponer recurso de alzada ante el presidente o presidenta de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de marzo de 2011.

La Directora de la Agencia Vasca
de Cooperación para el Desarrollo,
MARTA ARES GODOY.